LIVEWORKSHEETS

# 4 Ordutegi estua

- Denbora-sekuentzia.
- Ordutegiak.






Zer egiten duzu zuk oporretan? Nik, behintzat, gauza mordo-mordoa egiten dut. Nahi al duzu jakin zer egiten dudan?

Goizeko hamarrak aldera jaikitzen naiz egunero, ez baita komeni goizegi jaikitzea. Ondoren, gosaldu egiten dut eta, gero, andereñok udan egiteko eman zizkigun lanak egiten ditut. Hamabietan, igerilekura joaten naiz gurasoekin eta anaiarekin.

Ordubietan bazkaltzen dugu eta, ondoren, siestatxo bat egiten dut. Batzuetan ez dut lo egiten, baina etzanda egoten naiz, goxo-goxo. Seietarako pasieran joaten gara aita, ama, arreba eta laurok. Itzultzean, parkean elkartzen naiz nire lagunekin.

Udan berandu afaltzen dugu, bederatzi eta erdietan-edo. Sukaldea batu eta Leandro tabernariak plazan jarri dituen mahaietan esertzen gara guztiok. Gurasoek kafea hartzen dute, eta arrebak eta biok, berriz, izozki bana. Eta azkenik... ohera, lolo egitera. Hurrengo egunean berriz gauza mordoa egitea tokatuko zait-eta!

**1** Idatzi zenbakiak ekintzen ordenaren berri emateko. Zer egiten du mutikoak?





LIVEWORKSHEETS

LIVEWORKSHEETS

**2** Osatu mutikoaren ordutegia.



## GOIZEAN

Hamarretan _____

Ondoren, _____

Gero, _____

Hamabietan, _____

Ordu bietan, _____



## ARRATSALDEAN

Bazkalostean, _____

Seietan, _____

Itzultzean, _____



## GAUEAN

Bederatzi eta erdietan, _____

Gero, _____

Azkenik, _____

**3** Aipatu oporretan egiten dituzun zenbait gauza.

Goizean: _____

Arratsaldean: _____

Gauean: _____



LIVEWORKSHEETS